



aten.

GOIZEKO 06:00AK. Egunsentia Plateau de Beille estazioan. Gaua izartsua eta epela izan da. Ilargi beteak babes eta argi egin die partaideei, ez Montgarrin bizitako bi-bak hartan bezala. 34 *musher*-ek izarpean egin dute lo, *handler*-en laguntzarik gabe. Rudi Ropertz alemaniarrek, proba irabazteko faborito nagusiak, oraindik go-goan du Montgarriko gaua, haize eta euri erauntsien pean, bera bakarrik zakurrak gobernatu beharrean... «Orduantxe konturatu nintzen *handler*-ek orokorrean egiten duten lanaz, eta nire emazteak bereziki». Izan ere, *musher* on baten ondoan beti egon behar du *handler* on batek.

GOIZEKO 08:00AK. Frantziako elurrak agurtuko dituen etapa goiztiarra da oso. Lasterketako epaileak, Joe Runyan estatubatuarrek, irteera eman dio parte-hartzaile bakoitzari. Etapa, ordea, bezperan hasten da, *mushing meeting* delako bilkuran. Partaideek han jakiten dituzte hurrengo eguneko etaparen xehetasunak. «Kilometro kopuruaren eta ibilbidearen

Egun bat Pirenan

Sandra Lazaro Pirenako lan taldeko kidea

arabera, zakur batzuk edo besteak aukeratzen dituzu», dio Patrick Wirz suitzarrak, aurtengo Pirenako pulkista onenetako batek. Goizean goiz, berriz, edateko ura ematen diete zakurrei, ur hutsa. «Zakur batek lasterketan ohi duena baino bi bider pentsu gehiago jaten du; gainera, haragia eta arraina ere eman behar zaizkio, eta litro bat ur. Ez badu edaten, zakur batek ezin du korri egin», zehaztu du Damaso Hernandez andorrarrak.

Familia handi bat

Hamabost egun eta hamabost gau jatekoa, lotarako lekua eta hainbat komeria partekatzen. Pirenako an-

tolatzaile, pare-hartzaile eta abarrek, 220 lagun guztira, familia handi bat osatzen dute. «Pirenara ez zatoz soilik lehiatzera, aurreko urteetako adiskideak ikustera ere bazatoz. Bizimodu bat ere bada gurea», nabarmendu du Elisabeth Edlandek, kirol honetako erregina norvegiarrak. Eta familia guztiek bezala, antolatzaile zein par-

taideek, denek gozatzen dute Stevenen bihurrikeriekin. Silvia Furtwängler *musher* alemaniarren semea da Steven, sei urte baino ez ditu, eta gurasoeekin joaten da proba guztietara. Hortxe dabil gora eta behera bere plastikozko lera berdearekin.

Etaparen ondoren, neke aurpegiak ezagun dira lehiakideen artean, baina oraindik bada gogorik jolaserako. Ez dakit nor izan den lehena, baina bat-batean elurrezko pilota gerra batean hasi gara denak, ikusle, antolatzaile eta partaideak. Eguerdiko 12:00etan, podiumetik cavarekin busti dituzte eguneko irabazleek ikusleak. Berdin dio nork irabazi duen; lagun batek. Pirenako espedizio zuria, familia handia, traste guztiak hartu eta Andorra aldera doa.

azteekin aurre-aurrean ibiltzeak poztien nau batez ere»

idi
Pirenan

• Esan zenuen zakur onak zenituela, baina espero zenuen hain ondo ibiltzea?

Egia esan, ez; aurreneko hamarren artean ibiltzea posible ikusten nuen, baina bost aurrenekoen artean inolaz ere ez.

• Pozik, beraz?

Bai, oso pozik, baina bosgarren postuagatik baino gehiago zakurrak ondo ibili direlako oso. Urte eta erdiko zakurrak eraman ditut, zakur oso gazteak, eta etapa batzuetan Rudi Ropertzen aurretik ibili naiz. Ropertzek munduko zakur talderik onenetakoa dauka, eta bada zerbait. Urte eta erdiko zakurrekin hor aurrea zaudela ikusteak, lehenbizikoak urruti ez daudela ikusteak,

horrek poztien nau. Datorren urtean, zakurrak helduxeago direla, espero dut hobeto ibiltzea. Aurten, gaztetasun horren eraginez irten orduko den-dena ematen zuten zakurrek, eta etapa luzeetan 20. kilometrorako leher eginak geratzen ziren. Datorren urtean hobeto neurtuko dituzten indarrak.

• Datorren urtean, beraz, podiumean?

Ea hala den. Okerrrik ezean zakurrek hobeto ibili behar dute, baina entrenamendu egokia ere eraman behar da, ez gehiegi, ez gutxiegi. Puntu-puntu eraman behar dira zakurrak.

• Etapa garaipena lortzea izugarria behar du izan, ezta?

Izugarria, kirol honetan jarraitzeko izugarrizko bultzada ematen dizu.

• Nola lortu duzu egun duzun zakur taldea?

Orain arte huskyekin ibili naiz, baina aurten alaskanoekin korritu dut. Aita Elisabeth Edland norvegiarrari erosi nion eta ama Grant Beck kanadarrari. Hala, pixkanaka umaldiak egiten joan gara, orain dugun taldea lortu arte. Ondo begiratu behar duzu zer nolako zakurrak gurutzatzen dituzun, kume onak aterako zaizkizun bermea izan behar duzu; bestela, alferrik ari zara lanean.

• Elisabeth Edlandek dio zakur onak dituzuela baina ezin diezuela duten guztia atera,

entrenatzeko-eta elurra falta duzelako, besteak beste. Nola konpondu daiteke hori?

Ni iazko abenduaren 1ean Alpeetara joan nintzen, eta orain arte bi hilabete ibili naiz kanpoan, baina Alpeetan ere ez da nahi adina elur izan aurten. Hori dela eta, aurtengo abenduan Finlandiara joateko asmoa dut, datorren urteko Pirena hobeki prestatzeko. Han ez da elurrik faltako.

• Bitartean zein asmo duzu? Espainiako txapelketan ariko naiz, eta ez dut uste proba gehiagotan aterako naizenik. Bestalde, txakurtegi urtebeteko kumeak dauzkat, eta haiei erakusten hasiko naiz, datorren urterako prestatzeko.



Rudi Ropertz irabazlea.

Rudi Ropertz

60 urteko bibotedun atsegina

Rudi Ropertz alemaniarrek hogeit urtetik gora daratza *mushing*-aren munduan. 1980an hasi zen husky gutxi batzurekin, eta lasterrera *Finnbeck* izeneko zakur gidaria erosi zion norvegiar bati, dirutza ederra gastatuta. *Finnbeck*-ek, baina, ongi eskertu dio ahalegina, geroztik izan dituen zakur guztiak bere oinordekoak baitira. Egun, munduko zakur talderik onena du Ropertzek, bere lehiakideen esanetan. Pirenan, ondo erakutsi du bere jakituria eta zakurren maila: 13 etapatatik zortzi irabazi ditu eta besteetan ere oso gertu izan du garaipena. Azken garaipena ezezik, jendearen irribarrea ere bereganatu du alemaniar bibotedunak, bere umore eta izaera jendekoiari esker. *Musher* bikaina izateaz gain, Alemaniako Mushing Federazioko lehendakari ere bada Ropertz.

SAILKAPENA

LERAK

1.- RUDI ROPERTZ	ALEMANIA	12.57.02
2.- FABRIZIO LOVATI	ITALIA	13.25.48
3.- JOSEP DOMINGO	ESPAINIA	13.34.55
4.- ELISABETH EDLAND	NORVEGIA	13.52.49
5.- IKER OZKOIDI	EUSKAL HERRIA	14.04.26
Agua de Veri-Solver-Spray Way		
6.- CARLES FRANCH	ESPAINIA	14.07.15
7.- AITOR ALESON	EUSKAL HERRIA	14.14.36
Fumarel-ZAC-Conseilh Generau D' Aran-Santi Campos Team		
8.- JESUS CERDAN	ESPAINIA	14.30.30
9.- JESUS RAIGOSO	EUSKAL HERRIA	14.35.33
Pro Plan		
10.- XAVIER MARTI	ESPAINIA	14.43.23
21.- JUAN CARLOS PRIETO	EUSKAL HERRIA	19.14.07
22.- DANIEL LEKUONA	EUSKAL HERRIA	19.16.03
Mugarri-Productos Zoosanitarios Kimu-Salica-Autoescuelas Basurto		

PULKA

1.- ALEXANDRE BEGRAND	FRANTZIA	7.30.48
2.- PATRICK GELEY	FRANTZIA	8.03.48
3.- PATRICK WIRZ	SUITZA	8.07.09
4.- RAPHAEL SCHROECK	ALEMANIA	9.11.41
5.- JANA PORUBSKA	TXEKIA	9.25.25
6.- RAFFAEL MEYER	SUITZA	9.27.34



Jesus Raigoso musher nafarra, Pirenako etapa batean.

Ropertz bera ere larri ibili zen etapa horretan, jaitiera batean erorikoa izan eta kordea galduta ere izan zen zenbait unetan, baina nola edo hala lortu zuen etapa hura amaitzea. Ropertzek, bere 60 urteekin, garaipena ez ezik zale guztiak ere poltsikora-tu zituen bere umorearekin.

Hamabi aurrenekoak guztiak ere alaskano arrazako zakurrekin lehiatu dira. Hor frogatzen da zakur horien azkartasuna eta indarra. Nordikoekin lehena Jaroslav Fiala txekiarra izan da.

Bestalde, aurtengo Pirenak berretsiegin du euskal *musher*-ek gero eta maila

hobea dutela. Iaz *Lobito* Raigoso bosgarren izan zen, eta aurten postu bera lortu du Iker Ozkoidik. Ikerrek, gainera, etapa bat ere irabazi du, Ropertz, Edland edo beste lera-gidari profesionalen aurretik. Eta etapa garaipen horrez aparte, beste lau bider igo da podiumera. Raigoso bera ere ondo ibili da aurten: bederatzigarren amaitu du, eta etaparen batean podiumera igo da, gainera.

Aitor Aleson musher azkoitiarrak ere proba bikaina osatu du. Santi Camposen zakurrekin lehiatu da Aleson, eta zazpigarren izan da azkenean. Alesonen pos-

tuak, gainera, meritua handiagoa du, seigarren etapa amaitu ondoren izotzetan irrist egin eta orkatila bihurritu baitzuen. Harrezkero, minduta ibili da, baina horrek ez dio galarazi, adibidez, La Molinako erakustaldi etapan hirugarren izatea. Erregular ibili da gainera, eta zazpi aurrenekoen artean amaitzea ez da makala. Iban Uriondo gasteiztarrek hamar aurrenekoen artean ibiltzeko asmoa zuen, baina antolakuntzak etapetako baten ezarritako zigorrarekin ados ez, eta haserre antzean, lasterketa uztea erabaki

zuen. Juan Carlos Prietok eta Daniel Lekuonak, azkenik, amaitu eta lasterketaz gozatu beste helbururik ez zuten, eta ederki asko bete dute asmo hori, 21. eta 22. izan dira hurrenez hurren.

Pulkan, Begrand jaun eta jabe

Pulka modalitatean (eskiekin eta zakur batetik hirura bitartean) Alexandre Begrand frantziarra jaun eta jabe izan da. Munduko txapeldunak etapa guzti-guztiak irabazi ditu, aurkariei aukerarik txiki-ena eman gabe.